MOTZAK PATXI ALDABALDETRECURI OMENALDIA · GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA ABEL HERNANDEZ AZKOITIKO TENIS TXAPELKETAKO IRABAZLEA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko ekainaren 27a/XI. urtea/451. zkia



MARIVI AGIRREGOMEZKORTA, ELGOIBARKO ALKATE BERRIA

## "Ez naiz aldaketa erradikalak egitearen aldekoa"

"NOLAKO ALKATEA, HALAKO HERRIA" (esaera zaharra)

13ac atc)z belle

)ULENg

Poltsa, malet; a bitxiakillro20

Zapi eta aterkiak %30

Zapata eta bileterak %40

UztniNrerĭletik aurreral

San Frantzisko, 43

Tel.: 943 74 42 53

# EZEN-BIDE

Kolxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *ikasteko g*



**ORDUTEGIA**

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etatik-20:30era

**n Frantzisko, 43 - 1. solairua**
el. 943 742 720
0870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# 40 URTE
# 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA



## 23 Udal Euskara Batzordea

Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordea Elgoibarko Izarraren iniziatibaz jarri zen martxan. Ordura arte, euskarari lotutako gaiak Kultura Batzordean aztertzen eta erabakitzen ziren Udalean. Baina batzorde honetan euskara azken gaia izaten zen; azken orduan eta presaka aztertzen ziren euskarari lotutako gaiak.

Egoera honen aurrean, 87ko Udal Hauteskundeak berehala zirela aprobetxatuz, Elgoibarko Izarra herriko alderdi politikoekin jarri zen harremanetan. Iñasiok eta Sebasek esan digutenez, "Hint-lau hilabeteko lana izan zan eta oso harrera ona izan zaban gure proposamenak. Alderdi guztiak azaldu zian Euskara Batzordia sortziaren alde."

Hala, 1987an Udal Euskara Batzordea osatu zen Elgoibarren. Batzordearen zeregin nagusia euskararen normalizazioari administraziotik eragitea zen. Hasieran politikoek eta udaleko itzultzaileak osatu zuten batzordea. Juan Mari Mendizabal izan zen lehen batzorde burua. Gero, 1988ko lehen hilabeteetan, teknikaria bat kontratatzea erabaki zen Batzordearen dinamikari eragiteko. Kristina Zuazubizkar aukeratu zuten eta berak segitzen du gaur egun ere.

Hasierako urteetan Elgoibarko Izarrak oso paper garrantzitsua bete zuen Batzordean. Herriko ikastetxe eta beste erakunde batzuekin batera, Elgoibarko Izarrak buru belarri jardun zuen lanean Euskara Batzordean. 93tik aurrera, berriz, Elkarteak etapa berri bati ekin zion eta Euskara Batzordera joateari laga zion. Halere, Elkartearen eta Euskara Batzordearen arteko harremanak oso onak dira eta urtero hitzartzen dute lankidetza hitzarmena.

*Informazioa: Iñasio Garmendia, Sebas Larrañaga eta Kristina Zuazubizkar.*
*Testua: Imanol Larrañaga*

# iritzial



## Harry Potter

Milioi bat ale saldu dira bi egunetan. Zer du Harry Potterrek? Ze erako magia egin du J.K. Rowling idazleak bere liburuak hainbeste saltzeko? Ilara amaigabeak, dozenaka pertsona ordu luzez zain liburudenda kanpoan. Marketing hutsak eragin al du hain oihartzun zabala? Harritzen naiz. Ez dakit zein den sekretua baina konbentzituta nago lerro artean irakurleak zerbait berezia, desberdina, hunkigarria, miresgarria, magikoa aurkitzen duela. Harry Potter eta Fenix-aren ordena deitzen da argia ikusi berri duen azken liburuak. 38 kapitulu ditu, 768 orri eta 255.000 hitz. 768 orri[111111] Teorian haurrei zuzendua dagoen liburirik arrakastatsuena ez da 100 orri justu dituen eleberria. Garbi dago irakurlea erabat sorgindu behar duela idazleak hainbeste orriko liburutzarra eskaini, eta jendeak urrea balitz bezala erosteko. Edinburgon, Londresen, Madrilen, Sidneyn eta Kuala Lumpurren.... Munduko hiri guztietan fenomeno soziologiko bihurtu da nobela hau. Ez du ez arraza, ez hizkuntza ezta kultura bereizketarik egiten. Jende guztiarengana iristen da. Eta hori inportantea da, beste arlo askotan bezala, batzen dituena banatzen dituena baino garrantzitsuagoa delako.

Hara, astelehenean Errealeko jokalariei Andoni Egañak eskaini zien bertsoan oso gauza polita esan zuen, alegia, gutxienez egun batez lortu zutela euskaldun gehienen ametsa bertsua izatea. Bizi dugun mundu ero eta zentrifugatu honetan, polita da tarteka arropa garbia ateratzea garbigailutik. Orbainik gabekoa.

Harry Potter ez dut ezagutzen. Ez ditut bere abenturak irakurri. Baina tentatu nau. Zerbait behar du izan lerro-artean. Ez dakit pottermanian eroriko naizen. Baina hainbeste jende batzeko gai den istorioak zein kable dituen jakin nahi dut. Errealitatean zaila da. Akaso fikzioan bilatu beharko dira pistak.

Jasone Osoro


Kexak ...... 5
motz motz .......................... 10
gehigarria 13
kiRolAk .. 20
aGenda .. 24

2003 -VI- 27

# Urruzunoren begi ezkutua



## Istripua

Istripu hartan ziren bi,
bata aita, bestea aitzaki,
ta seinale hura desagerturik
bizitza hartu zuen bere
bigarren semeak aitzakia atxortu gabe.
Patatak jateko, arrautzak
frigitzeko, piperrak eteiteko
eta agian ganbatxo batzuk
Gabonetarako. Errosarixo
jaixetan idixerra,
entsaladarekin, ta ez
eena, baizik eta nere
atxakin aitzikitzatzeko
salda txuria
berakatzak haurtzaindegirako
musu bat amamandako.

Joseba Esnaola


ASTE KARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.cornibarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDIPIATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia .MAKETATZAILEA Jaione LINEIRUO GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostba, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARRO IZARRA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



kutxa xariesker

ADANOBAT GOITI GRUPO DANOBAT FATARTA




## KEXAK

Sigmako bizilagun batzuk esan digutenez, Sigmako transformadorearen atzean Olasoko ur residualak daude, eta oso usain txarra dago ingurune guztian: "Uda partean, batez ere, usaina jasanezina da, beroak usain txarra areagotu egiten du. Ia urtebete daramagu honela, eta bada zerbait egiteko ordua. Bestalde, gauez ardiak ibiltzen dira larrean, eta txintxarriekin ez dute lo egiten uzten".



* Herritar batek esan digunez, Melitongo errotondako obraren ondorioz sortzen diren kotxe ilarak onartezinak dira: ¯Ondo dago errotonda egitea, baina trafikoa ezin daiteke modu horretan moztu. 20 minutu baino gehiago egoten dira kotxeak geldi, eta jende asko berandu iristen da lanera. Norabide bakoitzean denbora gutxiagoko trafiko mozketak egin beharko lituzkete, edo bestela gauez lan egin. Denbora ugari daramate horrela. Melitonen ez bada, Madalan daude obrak, eta gidariak beti gaude zain, eta toki guztietara berandu iristen gara".



## TXALOAK

Pilar Ikastetxeko irakasleek LH 4 eta 5. mailetako Beatriz Alvarez, Ainhoa Ayesta, Naia Membrillera, Nora Landaluce eta Amaia Lersundi txalotu nahi dituzte, aurtengo ikasturtean bakoitzak euskara, ingeles eta gaztelaniazko 30 liburu baino gehiago irakurri dituztelako. "Segi horrela!".

Herritar batek Udalak kaleratu berri duen Elgoibarko bideoa asko gustatu zaiola adierazi digu: "Udalari eta bideoa egin duenari eskerrak eman nahi dizkiot, nire herriaz harro sentiarazi bainaute. Ez nekien Elgoibarren horrenbeste gauza zegoenik".

Barrak, Birrak eta Barreak



# Marivi Agirregomezkorta, ELGOIBARKO ALKATEA

# "Alkatian aulkixan eseri nitzaniar

*Marivi Agirregomezkorta da Elgoibarko alkate berria ekainaren l4az geroztik. Banco Santander Hispanoko Eibarko bulegoko zuzendaria izateari laga eta datozen lau urteotan Udaleko arduradun nagusia izango da 48 urteko emakume elgoibartar hau. Elgoibarko historian lehen emakumezko alkatea izango da, baina Marivik berak ez dio garrantzi berezirik eman nahi generoari. Lanari ez dio beldurrik eta alkatearen aulkian eseri zenean emozioz negar egin zuela aitortu digu, berarentzat ohore handia baita bere herriko alkate izatea. Ezagutu dezagun piska bat gehiago nor den Elgoibarko alkate berria eta zer asmo dituen datozen 4 urteetarako.*



**Elgoibarren estreinako emakumea izango dugu alkate karguan. Igarriko al da emakumearen eskua? Zertan?**

Ez dot uste emakumia izateagatik desberdina izan bihar danik, ez da sexuan araberako kontua. Igartzekotan, eindako lana igarri dadila gustauko jatan.

**Zer sentitu duzu alkatearen aulkian eseri zarenean?**

Emozio handia, nere herriko alkate izatia ohore handixa da neretzat. Negar ein naban. Alkatia izatia nahi naban proposau ziatenian ere demaseko ilusiva ein zian. Ondo pentsatu eta baietz erantzun nabanian, neretzat oso aberasgarrixa izan dan prozesu batian sartu nintzan. Hortik aurrera dana lotuta etorri da. Ikusiko deu zela amaitzen dan, baina horrela hastia, ingurukuen babesakin, inportantia da.

**"Herri maitatzea, lan gaitasuna, zuhurtasuna eta zintzotasuna dira alkate on baten hiru ezaugarri"**

**Gustatu al zaizu alkatearen despatxoa? Zerbait aldatzeko asmorik?**

Bai, oso "señoriala" da. Hala ere, garrantzitsua da lantokixari norberan ikutu pertsonala ematia eta egin ditxut aldaketa txiki batzuk.

**Zein hiru ezaugarri behar ditu alkate on batek?**

Herria maitatzea, lan gaitasuna, zuhurtasuna eta zintzotasuna. Azken bixak batera dijuazela uste dot.

**Zuk ba al dituzu?**

Baietz uste dot, hala usteko ez banu ez bainuke alkate kargua onartuko.

**Nolakoa da gure herrian osatu den alkate-zinegotzi taldea? Gustatzen al zaizu?**

Oso pozik nago. Postu bakoitzerako pertsonarik egokixenak bilatzia izan da

## IMANOL GARAIZABAL, sernea



"Amari buruz esan dezakedana da, gauzak argi dauzkan pertsona dala, lagunen lagun ona, jendearengan konfiantza duena, alaia, gauzak dian moduan onartzen ditxuna eta indar handiduna.
Beti esaten diot berari, lagun modura eukitzia naixo dotela etsai modura baino. Onera: erreza da berakin hitz egitia eta gauzak arrazoitzia. Txarrera, ordia, nik baino "pronto" bizixaua dauka. Bestalde, lanerako gaitasun handixa dauka, jendiakin hitz egin, entzun, erabakixak pentsatu eta bizkor hartzen ditxu. Ez da kikiltzen eta helburuak argi ditxu.
Bukatzeko esan dezakedana da, ilusio haundixa dakala gauzak ondo eitxeko, eta ziur nago, lana gogor eingo dabala, bere esku dauan guztixa eginez herria hobetzen jarraitzeko".

# emozioz negar ein naban"





gure lana, bakoitzan perfilari kasu eginez. Taldian lan eitxeko ezaugarri egokixak ditxuzten pertsonak topau ditxugu: ilusiodun jendia, konpromisoak hartzeko prest daudenak eta lanerako gogua dakabenak. Manu (Manuel Astray) eta ni ezik beste guztixak berrixak dia. Beste alderdixetako zinegotzixei dagokixenez, PSOEkuak lehenguak dia eta ezagutzen gera. PPko bat ere ezagutzen dogu aurreko legealditxik. IUkua eta PPko zinegotzi berrixa agurtzeko astixa bakarrik euki dot oingoz. Ez dot uste arazo berezirik euki biharko dogunik.

**EAJ-EA koalizioak gehiengo osoa dauka Udalean. Nahi duzuena egingo duzue ala oposizioari entzuteko asmoa daukazue?**

"Nahi duguna egitea" moduko jarrerak onartzea edo pentsatzea, zikiera, ez litzateke gure herriarekiko etikoa izango, inondik ere.

**"Einbioukuekin berba eitxeko asmua dkat. Hortik aurrera ia zer ein dezakegun borondatiakin"**

**Pentsatu al duzu Einbioukoekin zer egin? EAJ-EA koalizioaren ostean, beraiena izan zen aukera bozkatuena, nahiz eta aukera ilegala izan.**

Legalidade barruan daozen alderdixekin elkartu eta hitz egin nahi dot lehenengo eta ostian Einbioukuekin berba eitxen hasi nahi nuke. Oindik ez diet deitxu aurrez beste alderdixeri nere posturian berri eman nahi dietelako, hau da, Einbioukuekin berba eitxeko asmua dakatela. Gero zer ein dezakegun, ez dakitx. Momentuz berba bakarrik, hortik aurrera borondatiakin ia zer ein dezakegun. 900 bototik gora daoz hor eta ezin ditxugu ahaztu. Eurekin hitz egin nahi nuke eta eurek zer proposamen daken jakin. Hala ere soluzio bat dakatela edo eman bihar dietela pentsatuz baldin badatoz, nik ez dakat Z

**IMANOL SANTOS,** Eldoibarko EAJ-PNVko presidentea



"Maribi, alkate bezala ezaugarri ezin hobiak ditxuan emakumia da. Elgoibartar peto petua, ideia argikoa, langilia, gestiogintzan aditua eta taldelanerako bikaina.
Alderdikide bezala, berriz, emakume abertzale eta bakezale sutsu baten aurrian gaude, baina garrantzitsuaguak dia pertsona bezala ditxuan ezaugarrixak, bere umoria, jendearekiko gertutasuna eta apaltasuna. Emakume aparta dudarik gabe!!!".

soluziorik. Oin alde bixen artian bide batzuek bilatzen badeuz, nik borondatia badakat. Ez dakit zer irten leiken, baina sekula ez dot ipini arpegixa bi bider matrailekua jasotzeko. Gauzak borondatiakin badixez aurrera hemen egotia gustauko litzaidake, nola ez dakidan arren. Gauzak okertzen badia eta gaizki baduaz ez dao traturik.

**Amaitze aldera, esango al diguzu Elgoibarren berehala aldatu behar diren bi gauza?**

Ez dot uste aldaketa erradikalik egin behar denik aurrez ondo pentsatu gabe. Momentuz ez nua ezer aldatzera. Lanian hasi eta poliki-poliki jungo gera aldaketak eitxen. Daukagunetik abiatuta egin nahi ditxugun gauzak burutzeko programak martxan jartzia izan bihar da Udalan lana.

**Eta hurrengo lau urteetarako daukazun erronkarik zailena? Zeri edo zein alorri eman nahi diozue lehentasuna datozen 4 urteotan?**

Herrixa edertu edo dotoretziari, orokorrian, bizi kalitatian hobetzian eragin zuzena eukiko bailuke. Parkiak, umiak jolasteko lekuak... hasi gera begiratzen, herrixak bihar ditxu-eta. Gauza txikixak dia, ez da aurrekontu handirik bihar, baina ez dia egun batian eitxeko gauzak.



"Datozen lau urteetan herrixa edertzen eta Jotoretzen daukagu erronkarik zailena"

## TXIKIAN

**Idoia lenarruzaheitiaren traza hartzen dizut.** Ez dut pertsonalki ezagutzen eta ziur nago lehendakariordeak behin baino gehiagotan erakutsi duen gaitasun eta azkartasunetik oso urrun nagoela.
**Esango al diguzu zer gosaltzen duzun?** Ur baso bat eta kafe eta esnea.
**Etseko txohorik kuttunena?** Egongela
**Egin duzun astakeriarik handiena.** Sekula astakeria handirik egin ez doten sentsaziva dakat. Alkate izatia izan leike handixena.
**Poliliko guztiak herdinali dira!** Niretzat ez
**Akordatzen zara lehen musua zeini eman zenion** Bai, 17 urterekin izan zan
**Entzutea ala hitz egitea nahiago?** Momentuaren eta unearen araberakua izaten da. Berba asko eitxekua naiz, baina entzutia izan da nere lana urte askotan.
**Zer izan nahi zenuen lalkitan?** Erizaina, nire adineko nesken %99ak moduan.
**Denbora llbrean zer egiten duzu?** Denbora piskat dakatenian asko gustatzen jata batzuetan ezer ere ez eitxia. Egoera animikuak eta urtaruak zeresan handixa dake. Udan, berriz, pasiaria eman, plaiara jun... gauza asko daoz. Eskiatzera ere gustura juaten naiz.

## OTUPRIINTIIAN

**Feminismea** Emakumearen askatasunerako beharrezko mugimendua
**Euskal Herria** Nire herrialdea
**Indarkeria** Denon artian errotik atera biharko genukeen gaitza
**Euskara** Gure hizkuntza
**Plaza txikia** Denok ezagutzen dogun plaza, hobetzeko aukerak dituena
**lapatu arratsaldeak Elgoibarren** Gazte askorentzako elkargunea
**Ihaliko arazoak** Ahalbailehen eta ahal bezain beste konpontzen saiatuko gara
**Parkeak eta alsialdi guneak** Arduradunek hobetu eta elgoibartarrek zaindu egin behar dituzte

**MARI JOSE ZUBIAURRE,** laguna



"Oso langilea da, erantzun zuzenekoa eta sekulako gaitasuna du hasten dituen gauzak aurrera eramateko.
Pertsona bezala, egiazale, elkarrizketarako irekia eta bere lagunen lagun mina da".

# EGUZKIA ETA MELANOMA, BIKOTE ARRISKUTSUA

da iritsi orduko, eguzkitan etzan, eta arropa gutxirekin eguzkiizpien azpian gozatzeko gogoa izaten dugu. Hori guztia oso ondo dago.

Eguzkia hartzea normalean onuragarria da giza-organismoarentzat, neurrian hartuz gero. Baina bizitza sortzeko ezinbesteko den ondasun natural horrekin neurriz gain saiatzeak ondorio larriak ekar ditzake, eta hilgarriak ere bai kasurik larrienean. Gehienetan, erredura gogaikarriak izaten ditugu, deskuidoz eguzki-dosi handiegia hartzen dugulako; baina ez da ahaztu behar gehiegikeria horiek sarri errepikatzeak epe luzera gaitz handiagoa eragin dezakeela: azaleko minbizia.

Gaixotasun honetan bi mota nagusi daude: epilioma eta melanoma. Lehenak gaixoen %95ari eragiten dio eta gehienetan 50 urtetik aurrera azaldu ohi da eguzkitan denbora asko ematen duten pertsonetan. Beste azaleko minbizi motari melanoma deitzen zaio. Azaleko minbizi kasuen %5ean baino ez da melanoma detektatu, baina tumore kantzerigeno horren eraginez hiltzen da gaixoen %65a. Zoritxarrez ez dirudi epe motzera behintzat sendabiderik izango duenik. Azken balantzearen arabera, melanomaz atenditutako gaixoen kopuruak %7ko igoera izaten du urtero.

Azaleko minbizia nola prebenitu

* Lehen araua, eguzkia hartu aurretik neurriak hartzea: lehen eguzki-saioetan ez denbora larregi egon, graduazio handiko krema babesle on bat erabili, sarri-sarri krema eman (bainatu ondoren bereziki), jantziak beti eskura izan edozein unetan gorputza estali ahal izateko eta hondartzarako, itzalkina erabili (batez ere ume txikiekin).
* Melanoma oso tumore erasokorra da eta gorputzean zehar metastasiak (zelula kantzerosoak) zabaltzeko eta erreproduzitzeko erraztasun handia du. Baina beste minbizi moten aldean badu abantaila handi bat: beti kanpoan azaltzen da eta beraz, lehen momentutik ikusi eta berehela detekta daiteke.
* Mantxa edo orin asemetriko gisa agertu ohi da melanoma (ertz irregularrak eta definitu gabeekin), kolore uniforme eta aldakon̄ekoa; diametroa zentrimetro bat baino handiagoa eta handituaz joaten da.
* Hasierako faseetan detektatuz gero, kasuen %90 sendatu egiten da; funtsezkoa da, beraz, azkar antzematea. Horretarako, norberak edo konfidantzazko norbaiten laguntzaz gorputz guztia begiratzea izaten da onena.
* Autoesplorazioa egin nahi bada, gorputza osorik ikusi ahal izateko ispilu baten aurrean biluztea komeni da; eguzkiak ukitzen ez dituen lekuetan ere agertzen da melanoma. Ispiluaren aurrean gorputzaren aurre alde guztia begiratzen da (burua, enborra, sabela, besoak, eskuak eta hankak), eta gero atzeko aldea, eskuko ispilu baten laguntzaz. Azkenik, gorputzaren alboak, hankartea, oinak (oinazpiak ere bai) eta buru-azala begiratuko ditugu. Era honetako mantxaren bat agertzen bada, berehala medikuarenera joatea komeni da.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**



## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda

ivieaiku itza Je. Da;,1 .11asaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista

„ 943 **74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

Frantzisko. __ • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-1 9:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

# Patxi Aldabaldetrecu omendu zuten ekainaren 25ean IMHko museoan

## Historikoki Makina Erremintaren munduan oso ezaguna eta enpresa askoren sortzailea izan zen Aldabaldetrecu

Patxi Aldabaldetrecu omendu zuten ekainaren 25ean, IMHko Museoan. Bere alarguna, seme-alabak, senideak, Maribi Agirregomezkorta, Elgoibarko Alkatea; J.M. Oruesagasti, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea; Museoko Patronatuko kideak eta langileak, AFMko ordezkariak, IMHko zuzendaritza taldea, eta sektorean zituen ezagun ugari izan ziren bertan. Ibarretxe lehendakaria ere etortzeko zen, baina azken momentuan ez zen inor etorri Jaurlaritzatik. Bere ordez, Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo saileko zuzendaria, Jose Mari Aldanondo izan zen omenaldian.

Ongi-etorriaren ostean, Patxi Aldabaldetrecuren izena duen Erakusketa Gela inauguratu zuten. Amaia Zuazok, alargunak, bistaratu zuen plaka. Ondoren loreak eta oroigarria eman zioten. Bitartean, 3 artisauk Debabarreneko armagin, grabatzaile eta erementarien lanak egin zituzten eta tailerrean XX. mende hasierako makinak martxan izan ziren.



*Amaia Zuazok, Aldabaldetrecuren alargunak, plaka bistaratu zuen unea.*

**Makina Erremintaren munduan oso ezaguna**

Patxi Aldabaldetreku museoko lehen Presidentea izateaz gain, "Makinak eta Gizakia" liburua idatzi zuen museoarentzat 2000. urtean. Aurretik ere, 1982. urtean argitaratutako "Makina Erremintaren historia teknikoa eta ekonomikoa" idatzi zuen, Carmelo Urdangarinekin batera.

Patxi makina erremintaren munduan historikoki oso ezaguna den pertsona izan zen, enpresa askoren sortzaile edo buru izanik: Debako "Agme" enpresako fundatzaile eta gerentea, ondoren "Debako" ("Danobat Taldea"ren aurrekoa) taldeko Zuzendari Orokorra, "Soraluce"ko Gerentea eta "Ideko"ko gerentea izan zen, 1995. Urtean jubilatu zen arte. Iazko martxoan hil zen Patxi Aldabaldetreku.

# Einbiou-k Elgoibarko Udala ilegitimoa eta ez demokratikoa dela adierazi du

## Herriko 2. indarra ezabatu eta legalitate espainola onartu izana leporatu diote EAJ-EAri

Ekainaren 14an osatu zen udaletxe berria indarraren eraginez sortu zela, eta 1000 herritar errepresentaziorik gabe gelditu direla, adierazi zuen Iñaki Odriozola Einbiouko zerrenda buruak hilaren 23an eskainitako prentsaurrekoan. Bestalde, herriko 2. indarra ezabatu eta legalitate espainola onartu izana leporatu zioten EAJ-EA koalizioari. Orokorrean, ekainaren 14a elgoibartarrentzat egun penagarria eta lotsagarria izan zela adierazi zuten.

Gertakari hauen aurrean, Einbiou-k bere balorazio propioa egin du. Alde batetik, Ezker Abertzaleak azken urteotan jasan dituen erasoak gero eta gogorragoak izan direla azaldu zuen Odriozolak: "Demokraziaren heriotza ere legeztatu dute, eta oinarrizko eskubideen urraketa gero eta nabariagoa da". Bestalde, 1000 herritarrek eskubide praktiko eta zehatzak galdu dituztela adierazi zuen: "Estatua eta herritarren arteko hitzarmen soziala apurtu egin da. Betebeharrak herritar guztientzat dira; eskubideak batzuentzat bakarrik". Honekin batera, EAJ-EA koalizioari legalitate faxista aplikata eta herriaren borondatea bahitzearen kritika egin diote: "Legalitate espainola onartzean demokrazia zapuztu dute, eta ez dagokien ordezkaritza bereganatzean lapurreta egin dute".

Einbioukoek argi utzi zuten beren helburua hauteskunde demokratikoak egitea zela, baina bitartean, hitzarmen soziala berreskuratzeko bideak badaudela adierazi zuten, gestorak sortuz adibidez.



*Edurne Lasa, Iñaki Odriozola eta Iñaki Bengoetxea.*

Azkenik, Einbiou-k hausnarketa propioa egiteko prest dagoela adierazi zuen, eta bide batez, EAJ-EAko Alkatetzari dei egiten dio egoera ez demokratiko eta ilegitimo hau nola gestionatu behar duen asma dezaten.

# Inazio Egaña eta Jose Mari Irusta omendu zituzten San Migeldarren Egunean

San Migel auzoko bizilagunek San Migeldarren Eguna ospatu zuten joan zen igandean, ekainaren 22an. Egun honetan urtero omentzen dute auzokideren bat, eta aurtengoan Inazio Egaña "Bioin" eta Jose Mari Irusta "Ubai Txiki" izan ziren omenduak.

Jose Mari Irusta urte askoan aritu da auzoko jaietan sukaldari lanetan, Santa Eskean etortzen zirenentzako mokadutxoa prestatzen eta orokorrean, auzokide guztiei laguntzen. Inazio Egaña berriz, auzolanaren eredu eta gizatasunean maixu izan da beti, baina batez ere, Morkaikupe frontoia eraiki zutenean, bera izan zen lanean aritu ziren auzokide guztien buru.

Honetaz gain, Meza Nagusia, pilota partiduak eta anaiarteko bazkaria izan ziren San Migeldarren Egunean. Bero handia egin zuen egun osoan zehar, baina txanpainari esker ez zen umorerik falta izan. San Migelera hurbildu zirenek egun ederra pasatzeko aukera izan zuten.



*Javier Arrizabalaga, Jose Mari Irusta, Inazio Egaña eta Marivi Agirregomezkorta.*



## San Lucar de Barramedako ferian izan ziren *sevillana* ikastaroko ikasleak

Argazkian ikus dezakezuen emakume koadrilak gauza bat du komunean; denak dira sebillana ikastaroko ikasleak. Guztiek dute irakasle berdina, baina Elgoibar, Eibar eta Ermuko ikasleak batera ageri dira. Elgoibarren 14 emakumek dihardu sebillanak ikasten. Urtero garai honetan Andaluzia aldera bidaia bat egiteko ohitura dutela azaldu digute. Iaz Kordoban izan ziren eta aurten, berriz, San Lucar de Barramedako (Cadiz) ferian. San Lucarretik 5 kilometrora dagoen Chipionako hotel batean egon direla azaldu digute eta oso gustura itzuli dira han ikusi eta bizitakoaz. Datorren urtean "Rocio"a ezagutzeko gogoa dutela aitortu digute.

## Haizea Emakume Taldekoak Germkan izan ziren

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, Gernikara egin zuen txangoa argazkiko emakume taldeak. Goizean atera ziren Elgoibartik, eta eguraldi txarra egin zuen arren, oso ondo pasatu zutela kontatu digute. Gauza asko ikusi zituzten bertan. Besteak beste Bakearen Museoan izan ziren. Gernikako Gerratean bizi izandakoa irudikatu dute bertan, bonbardaketaren arrastoak ikusi daitezke, eta emakume batek gerratea nola bizi izan zuen ezagutzeko aukera izan zuten. Soinua, sirenak... oso ondo eginda dagoela azaldu digute, eta asko gustatu zitzaien. Bestalde, Juntako Etxeak, Txillidaren eskulturak... ere ikusi zituzten. Gernikan bertan bazkaldu zuten, eta arratsaldean Urdaibai aldean izan ziren. San Juan de Gaztelugatxera ere joan ziren, baina eguraldi txarraren ondorioz ezin izan zuten gora igo. Egun oso polita pasatu zutela esan digute.



### Errotondetako obrak direla-eta, haserrea sumatu dugu herritar batzuen artean

# ZER EGIN DAITEKE OBREK SORTZEN DITUZTEN ENDREDOAK GUT)(ITZEKO?



**CARLOS EIZAGIRRE**
**35 urte, ingeniari teknikoa**

Gauez lan egitea izan daiteke aukera. Obrako langileentzat okerragoa izango da, baina gainontzeko guztientzat hobea. Lanera joan edo ateratzeko orduan 20 minutu geldirik egoteak ez dit graziarik egiten.



**01,5 FEFINAJIM P3E8TA**
**45 urte, kalitate arduraduna**

Ezin dira endredoak ebitatu, eta gainera, obrak egin behar dira. Azkenean denon onurarako dira, beraz, jasan egin behar ditugu. Beranduago iristen zara lekuetara, baina etxetik lehenago irtetzearekin nahikoa da.



**EUSEBIO FERNANDEZ**
**52 urte, mekanikoa**

Ez dakit. zaila da. Pasatu beharreko gauza bat da. Obrak beharrezkoak dira, eta onurak guztiontzako izango dira, beraz, obrak iraun artean aguantatzea tokatzen zaigu.



**LEYDA VILLARREAL**
**40 urte, ingeniari agronomoa**

Obra guztiak batera ez egitea izan daiteke aukera bat. Errepide guztia batera konpontzen badute, kotxe ilarak handiagoak dira. Obrak gutxinaka egin behar dira.



**111AHEI**
**54 urte, tabernaria**

Niri ez zait arazo horiek sufritzerik tokatu. Obrak asko luzatzen badira haserretzea normala da, baina dena epe barruan eginez gero, endredoak jasan egin behar ditugu, denon hoberako dira-eta.



**YOLI AVILA**
**29 urte, zaintzailea**

Ez zait ezer bururatzen. Obrak derrigorrezkoak dira gauzak hobetzeko, eta jasan egin behar dira. Azkenaldian beti obretan daude, baina denon hoberako izango direnez, endredoak aguantatu egin behar ditugu.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta
ZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

otamotat teytdoet 16 late dete aopieed
44111te4t ~4/01d04, nte dete aconeed/
>,aly 0 woy2 g41

ARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

Ki BaRRen

## Mendaroko udaleko batzorde informatiboen osaketa egin da

### Plenoak hileko azken ostegunetan ospatuko dira




Ostegunean izan zen lehenengo Udal Batzarra Mendaroko udalean eta bertan erabaki zen Batzorde Informatiboen osaketa. Ondorengo zinegotziekin osatuta geratuko dira: Hirigintza eta Ingurumeneko lehendakaria Miren Vives izango da; Ogasun, Ekonomia eta kontu berezietakoa Juan Garate; Udal Zerbitzuak, pertsonala eta mankomunitateko lehendakaria Esti Gonzalez; Kultura eta Kiroletakoa Aigeru Gallastegi; Nekazal gaietakoa Txomin Ulazia eta Giza Zerbitzuak eta Hezkuntzako lehendakaria, azkenik, Rosa Urain. Bestalde, korporazioko ordezkariak ere izendatu ziren.

Honetaz gain, Kukuko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren etendura mahai gainean gelditu zen, eta baita Mendaroko planeamenduko Arau subsidiarioen berrikuspenaren ikerketa hobea egiteko kautelazko etendura ere.

## Jubenilen txirrindulari lasterketa




Datorren hilean, uztailaren 5ean, "Sari Nagusia" Jubenilen txirrindulari lasterketa probintziala lehiatuko da Mendaron. Aurtengoarekin XVIII. edizioa duen lasterketa honen antolakuntza lana Mendaroko Txirrindulari Elkartearen esku egongo da, Mendaroko Udalaren laguntzarekin.

Irteera arratsaldeko 16:00tan izango da Mendaroko ikastolatik eta 82km-ko ibilbidea egin ondoren, berriro ere Mendarora itzuli beharko dute txirrindulariek, helmuga Udaletxe parean kokatuko baita. Lehenengo, bigarren eta hirugarren postuak lortzen dituzten txirrindularientzat sariak izango dira eta baita mendiko aurrenarentzat eta sailkapen hoberena lortu duen taldearentzat ere.

Esan, iazko edizioan 93 izan zirela txirrindulari partehartzaileak eta irabazlea C.M. Urretxuko Xabier Goenaga izan zela, 2h28min25s-ko denborarekin. Taldeka, berriz, Muebles Ordiziak irabazi zuen.

## Aire libreko zinema euskaraz

Gaur, ostirala, aire libreko zine emanaldia izango da Goñati frontoian In Leikek antolatuta. Euskarazko film bat izango da ikusgai: "Emil eta detektiboak", Franziska Buch zuzendariarena. Adin guztietako pertsonei zuzenduriko filma da. Nahi duenak, beraz, gaueko 21:30etan du zita herriko frontoian.

## Festetako programaren azala

Udalak 2003. urteko Santanetako programaren azala hautatzeko lehiaketa martxan jarri berri du. Edozein mendarotarrek parte har dezake eta kartela osatzeko gaia eta teknika guztiz libreak izango dira. Hori bai, lanak Din A4 neurrian eta posizio bertikalean eginak izan beharko dira. Kartelak ekainaren 30a arte aurkeztu daitezke udaletxean bertan, firmarik gabe eta lemapean. Kartel irabazlea Udalaren eskuetan geratuko da eta honek izango ditu bere gaineko eskubide guztiak. Irabazleak 220 euroko dirusaria jasoko du.

## 1. Herri Kirol Herrikoia

Bihar, hilak 28, goizeko l0etan jokatuko da Mendaroko I. Herri Kirol Herrikoia Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta. Era guztietako probak egingo dira: lokots bilketa, zakua lepo gainean eramatea, trontza, txingak, lasto-fardo jaurtiketa, soka-tira, intxaurrak ipurdiarekin apurtzea...Proba bakoitzak bere puntuaketa izango du eta talde irabazleari ondoren ospatuko den bazkaria ordainduko zaio.

**KilisaRRen**
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# ESTI GONZALEZ MENDAROKO ALKATE BERRIA

## "Partehartzea eta elkarlana baloratzen ditut tl

*Maiatzaren 25tik alkate berria dute Mendaron: Mendaro Talde Independenteko Esti Gonzalez. Hauteskundeetan jasotako botu kopuru handia sorpresaz hartu zutela aitortu digu; izan ere, beren hasierako helburua EAJren gehiengo osoarekin haustea zen soilik. Baina EAJren gehiengo osoa haustera joan eta MTlkoek gehiengo osoa lortu ez dute ba! Dena den, esker onez eta lanerako gogoz jaso du Estik herritarren konfiantza. Ea ba, alkate berriak zer kontatzen digun.*

**Zer sentitu zenuen alkate zinela jakin zenuenean?**

Ez nuen espero, hasieran pixka bat sustatu nintzen gainera zetorkidan erantzukizuna ikusita. Udalak herritar guztiei erantzuna eman behar die, ahal duen heinean behintzat. Dena den, esker onez eta gogoz hartu nuen berria, azken finean, jendeak nahi duelako baikaude gu hemen.

**Orain arte EAJ izan da agintean. Zer suposatzen du gehiengo absolutu horrekin amaitzeak?**

Bueno, egia esan guk ere gehiengo absolutua lortu dugu espero ez genuen arren. Hala ere, guk ez dugu gehiengo hori beraiek erabili duten bezala erabiliko, hori baitzen, hain zuzen, gure helburua: gehiengo osoa apurtzea. Gure ustez erabakiak adostuak izan behar dira eta herritarren partehartzea bultzatu nahi dugu.

### "Ez dugu gehiengo absolutua EAJk erabili duen moduan erabiliko"

**Zergatik uste duzu jendeak bere botoa aldatu duela?**

Jendea aspertuta zegoen udalak bere iritzia kontuan hartzen ez zuelako, boterea erabili dute erabakiak inposatzeko. Herritarrak ez zeuden gustura. Nik uste horregatik aldatu dutela botoa, talde berri bati aukera emateko. EAJrentzako zigor botoa izan dela esango nuke, guretzat, aldiz, esperantza botoa.

**Zertan aldatuko da Mendaro zurekin?**

Niretzat garrantzitsuena herritarrek Udala zerbait urrutikoa eta arraroa balitz bezala ez ikustea da, herritarrek nabari dezatela Udala beren zerbitzura dagoela, ez dezatela beldurrik izan beren zalantza edo kexak aurkezteko. Guk ahal den neurrian erantzungo dugu. Azken finean, ni ere beste herritar bat gehiago naiz eta partehartzea bultzatu nahiko nuke gehienbat, horrela erabakiak ahalik eta adostuenak izan daitezen.

**Orain arte gizonezkoak izan dira agintean, uste duzu aldaketa igarriko dela?**

Bueno, emakumeok beste sentsibilitate bat dugula diote eta, nik uste, emakume naizen heinean lehenago baztertuta zeu-



### zortziko txikian

**Nor da Esti?** Mendaroko beste herritar bat gehiago, bertako arazoen aurrean pixka bat sentsibilizatu dena eta jarrera aktibo bat hartu duena. Baina beste bat gehiago, azken finean.
**Nolakoa da Esti?** Aktiboa, alaia eta langilea
**Zeren alde edo kontra egingo zenuke manifestazio bat?** Giza eskubideen alde
**Herriko txoko bat.** Kilimon bailara
**Afizio bat.** Dantza egitea
**Amets bat.** Zoriontasuna nagusi den gizarte batean bizitzea
**Mesanotxean duzun liburua? "El** mundo de Sofia". Hor dut aparkatuta, orain ez dut irakurtzeko denborarik...

# naren gainetik"



den gai batzuk gehiago ukitzen saiatuko naizela. Nahi asko dauzkagu: haurtzaindegia, ginekologoa, pediatria...baina oraindik ez dakigu zenbateraino izango diren posible, ahal den guztia egingo dugu.

**Auzolanian herri plataforma ilegalizatua izan da baina jasotako boto kopuruaren arabera zinegotzi bat zegokion. Horren aurrean zer?**

Arazo hori komisio informartibo irekien bitartez bideratu nahi dugu. Orain arte Udal plenoen aurretik egiten ziren komisio informatibo hauetan Udaleko zinegotziak bakarrik biltzen ziren. Guk parte hartu nahi duen eta ideiak aportatu nahi dituen edonori zabalduko dizkiogu ateak. Asko dira Auzolanianen alde botua eman duten herritarrak eta kontuan hartu behar da beren iritzia ere; bai berena eta baita parte hartzeko prest dagoen beste edonorena ere.

## "Auzolanian plataformaren arazoa komisio informatibo irekien bidez bideratu nahi dugu"

**Zeintzuk dira epe laburreko asmoak?**

Hasteko, eta duen urgentziagatik, Arau Subsidiarioak eta Kukuko proiektua errebisatu nahi ditugu, jada diputaziora bidalita baitaude.

**Eta epe luzekoak?**

Urbanismoari begira Arau Subsidiario berriak egiteak lan handia izango du. Bestalde, programako puntuak betetzen joan nahi dugu. Orain pixka bat informatzen eta gure artean antolatzen eta lana banatzen ari gara eta jada osatuta dauden komisioetan lehenbailehen lanean hasteko asmoa dugu. Linea orokorrak markatuta dauzkagu eta poliki-poliki konkretatzen joan behar gara. Oraindik goiz da baina nahi asko dauzkagu.

**Zer eskaini nahi diezu mendaroarrei? Eta beraiengandik jaso?**

Ahalik eta erantzun onena eskaini nahi diet, Udala beren zerbitzurako, beren babeserako dagoelako. Ez da beraiek baino gorago edo urruti dagoen zerbait. Horregatik beraiei ere Udalera hurbiltzeko konfidantza eskatu nahi diet, edozertarako. Partehartzea eta elkarlana baloratzen ditutu denaren gainetik.

## bote prontoan

**Feminismoa** Berdintasunaren alde nago
**Euskal Herria** Gure etxea da
**Indarkeria** Ezabatu beharreko zerbait. Honen ordez borondate ona eta elkarrizketa eta elkarlanerako lana hedatu behar lirateke
**Euskara** Ez zait iruditzen aparte landu beharreko zerbait denik, egunero normaltasunez erabilita soilik bermatuko baita bere bizia
